



Cristina Almeida
hitzaldiarekin
hasiera eman
zizaion kultur
hamabostaldiari

Merkatalguneetan jarraipen zabala izan zuen greba deialdiak

Presoen inguruko azken gertaerak direla eta, greba orokorra deitu zuen martxoaren bederatzian ezker abertzaleak. Merkatalgune gehienak itxi ziren Andoainen eta Urnietan.

Lehen orduan hainbat merkatalgune zabalik baziren ere, goizeko hamarretarako gehienak itxita zeuden. Dendak, tabernak..., grebak jarraipen zabala izan zuen sektore horretan. Industriari dagokionez, enpresa askotan lan egin zen. Batzuk, agian, erritmo apalagoan eta besteak ohiko moduan. Urnietako Erratzu industrigunean, esaterako, eragin gutxi izan zuen greba deialdiak.

Andoainen bi manifestazio egin ziren, goizean nahiz iluntzean. Urnietan, anbulategi ondoko errotondan bildu ziren iluntzean.

Arratsaldera bitarte, bederen, aparteko istilu edo iskanbilarik ez zen izan eskualdeko bi herritan.



Zumea plazatik manifestazioa irten zen goizaldean. Ertzaintzarekin tira-birak izan ziren.



Ertzaintzak jarraipen estua egin zuen.



Idiazabal kalea Urnietan. Merkatalgune gehienak itxita eta enpresa asko zabalik.

Urnietako pilotarien harrobia



Urnietako pilotari gazteak.

Urnietako pilotalekuan aste guztian zehar izaten da mugimendua. Kategoria ezberdinetako pilotarien entrenamenduak izaten dira arratsalde eta iluntzetan. Guztira berrogeita zazpi haur eta gazte ari dira pilotan Urnietan. Gaztetxoek pilota eskolan aritzen dira, pilotaz gozatzeko eta ikasteko helburuarekin.

Helduxeagoak UKE taldeko pilota sailean dabilta eta aurreko bi helburu hauek betetzeaz gain, txapelketa ezberdinetan parte hartzeko aukera ere izaten dute.

(4. orrialdean jarraitzen du)

Andoain

- Cristina Almeida, Andoainen.
- Sei udal lanpostu berri.

2. or.
3. or.

Urnietan

- Herriko pilota taldea.
- Martxoaren bosteko manifestazioa.

4. or.
5. or.

InfoAiurri

- Denborapasak: Hitz gurutzatuak, hitz gezidunak, puzzlea.

6. or.

Agenda

- Datozen egunetako hitzordurik interesgarrienak.

7. or.

BetErriko
LibuRua



Datorren asteburuan 29. zenbakia argitaratuko da

■ Jon Maia eta Iban Zaldua idazleei elkarrizketa ■ Kritikak, iritzia..., euskal literaturako berriena

Egungo euskal literaturaren berri izan nahi al duzu?

- Jaso ezazu Beterriko Liburua aldizkaria etxean!
- Elkarrizketak, iruzkinak, kritikak, idazlanak, gomendioak, proposamenak...

**Beterriko
liburua
egitasmoa**

44. posta kutxa,
20150 Amasa-Villabona
943 300 732

beterrikoliburua@topagunea.com
www.larramendi.org

EUSKALDUNA FUTBOL TALDEA

Erregionala, 1.maila
Gure Txokoa- Euskalduna
Lar, 16:00. Bera
Jubenilak, 1.maila
San Ignacio- Euskalduna
Ig, 18:00. Felix Garin
Kadeteak, 1.maila
Euskalduna- Mutriku
Lar, 15:30. Allurralde
Emakumezkoak
Euskalduna- Urnieta
Lar, 17:15. Allurralde

Emakumezkoak F8
Euskalduna- Intxaurdi
Lar, 11:45. Allurralde
Alebinak
Euskalduna- Hernani
Ig, 12:15. Allurralde
Alebinak, eskolartekoa. Lar.
Ondarreta 6 - Ikastola 5 09:30
Katamotzak - Txepetxak 10:30
Ikastola 6 - Ondarreta 5 10:30
*Gainerako taldeek, atsedena.

LEIZARAN ESKUBALOI TALDEA

EMAITZAK

Jubenil mutilak
Amenabar 24 - Leizaran 16
Infantil mutilak
Ikastola 15- Udarregi 18
LSB 21- Amenabar 18
Senior neskek
Leizaran 16- Calasancio 13
Jubenil neskek
Elgoibar 18- Leizaran 12
Kadete neskek
Basauri 17- Leizaran 23
Leizaran 36- Hondarribi 3

ASTEBURUAN ZER?

Jubenil mutilak
Leizaran- Elgoibar
Ig, 11:30, Urnieta
Infantil mutilak
LSB - Egape
Lar, 09:30, Allurralde
Jubenil neskek
Leizaran- Zarautz
Ig, 10:00, Allurralde
Kadete neskek
Leizaran - Aiala Zarautz
Lar, 11:00, Allurralde

Zuhaitzen mozketa Ondarretan



Joan zen asteazken goizean Ondarreta kaleko zuhaitzak mozteari ekin zioten beharginek. Herritarren harridura sortu zuen mozketak. Iaz, Txistokiko etorbidearen hasieran ere moztu zituzten zuhaitzak eta hainbat herritar kexu azaldu ziren.

Basteroko ekitaldi aretoa gainezka zegoen martxoaren zortzian

Almeidaren hitzaldiak interes handia sortu zuen

Emakumeen Nazioarteko Egunean **Toñy Landa** Udaleko kultur zinegotziaren eskutik jaso zuen **Maddi Trutxuelo Aiurriko** lankideak kartel onena saritzen zuen aipamena eta saria. Diseinatzaileak eskeroneko hitzak eskaini ondoren, dirua **Sahara** aldera bideratuko zuela berretsi zuen.

Segidan, hitzaldiari hasiera eman zitzaion. **Cristina Almeida** abokatuak jendetza handia erakarri zuen Basterora. Hainbat eta hainbat kanpoan geratu ziren aretora sartu ezinik. Txiki geratu zen, beraz, ekitaldi aretoa.

Almeidak berehala bereganatu zuen entzulegoa. Aspaldi Madril bizi den arren, Jaengo eta Andaluziako herritarrek duten grazia horrekin arin-arin hitz egin zuen. Kartel irabazlea abiapuntuztat harturik, mundu osoko emakumeek egoera eta arazo bereitsuak dituztela adierazi zuen. Horren arira, estatuan emakumeen lorpenak nahiko berriak direla gogora ekarri zuen. Bere hezurretan bizitako gertaeratan baliatu zen 1964tik hona eman diren aurrerapausuak adierazteko.

JAIA ETA ALDARRIKAPENA

Martxoaren 8a ospakizun moduan hartu behar dela azaldu zuen, aldarrikapen eguna ere izan behar duela ohartaraztearekin batera. Entzuleek atsegin handiz jarraitu zuten abokatu honen hitzaldia.



Cristina Almeida abokatuak, hitzaldia hastear zela.

© J.I.Unanue

EKITALDI UGARI

Abiapuntu ezin hobea, beraz, martxoaren zortziaren inguruan. Datozen hamar egune-

tan ekitaldi ugari iragarrita daude: zinema, antzerkia, afaria..., datozen egunetako egitaraua Agenda atalean.



Maddi Trutxuelo saria jaso zuen unean. Alboan, kartel irabazlea.

© J.I.Unanue

AKEK KLUBEKO IGERILARIEN ERAKUSTALDIA



Otsailaren erdialdean Alitzako kiroldegian Kutxa Sariko kanporaketa jokatu zen, eta Andoaingo Kirol Elkartuen Klubeko hamabi igerilari sailkatu ziren Tolosan jokatu zen finala jokatzeko.

Argazkian agertzen diren kirolariek finalean parte hartu zuten. Hauexek, beraz, Tolosako igerilekuan ateratako argazkiak. Taldeko arduradunek bereziki nabarmendu nahi dute **Iker Hernandezek** lortutako hirugarren postua eta **Lorea Sotoren** laugarrena.

Andoaingo taldea etenik gabe ari da lanean. Igerilari batzuk, gainera, maila bikaina erakusten ari dira.



Estatuko boletinean argitaratu arte ezin hautagaiak aurkeztu

Sei Udal lanpostu berri oposaketa bidez



Administrari lanetan aritzeko lan deialdi berria egin dute udal agintariek.

Bost administrari laguntzaile eta hiritarren arretarako laguntzaile bat behar ditu Andoaingo Udalak. Martxoaren 3ko Gipuzkoako Boletín Ofizialean argitaratu zen deialdia, eta estatuko boletinean argitaratzen denetik, hogeitau eguneko epea zabalduko da izena eman ahal izateko.

Idazkaritzako, Langileriako, Hirigintza eta obratako, Gizarte zerbitzuetako eta Udaltzaingoko administrari laguntzaileak eta hiritarren arretarako laguntzaile postu bat dira hain zuzen Andoaingo Udalak lehiaketara atera dituenak.

Deialdira aurkezteko, ezinbestekoa izango da Eskola Graduata eta Lehen Mailako Lanbide Heziketako titulua edota baliokide den beste edozein titulu izatea. Gainera, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna izatea derrigorrezkoa izango da, edo, bestela, oposizioaldian egiaztatu behar da. Idazkaritza edota

Langileriako administraritzan aritzeko, 2. hizkuntza-eskakizuna eskatuko da eta gainera koetan, 3. eskakizuna.

Izena emateko epea zabalitzen denean, Andoaingo Udaletxean aurkeztuko dira eskaerak. Nahi izanez gero, eskaerak posta bidez aurkezteko aukera ere izango da. Horretarako, eskaerak gutun-azal irekian aurkeztuko dira, Postako langile-funtzionarioak datatu eta zigilatu ditzen.

LAU ARIKETA EZBERDIN

Oposaketa bidez aukeratuko dira lanpostuetarako pertsona egokienak eta hautagaiak, lau ariketa gainditu behar dituzte. Lehen hiru ariketak derri-gorrezkoak eta baztertzailak izango dira, eta laugarrena, berri, borondatezkoa eta ez baztertzaila. Lehen ariketaren toki eta data Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Andoaingo Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira, onartu-

Estatuko boletín ofizialean argitaratzen den egunetik, hogeitau eguneko epea zabalduko da deialdian izena emateko.

tako eta baztertzutako hautagaien behin betiko zerrendarekin batera. Gutxienez, zazpi egunetako tartea egongo da zerrendak argitaratzen diren eta lehen ariketa egunera.

LAN POLTSA SORTUKO DA

Hautaketa-prozesuko amaierako kalifikazioa egin ondoren, gainditu duten hautagaien zerrenda egingo du epaimahaia, bakoitzaren kalifikazioen arabera. Zerrenda hori Andoaingo udaletxeko iragarki-taulan jarriko da jendaurrean.

Sortutako zerrendekin, Andoaingo Udalaren barruan behin-behineko izaeraz sor daitezken egin beharretarako lan-poltza osatuko da.

Martxoaren hogeita bostean Zumea plazan, ordu berean

Gazteen olinpiadak, bertan behera

Aurreko Aiarri astekarian eskualdeko Gazte olinpiaden aurrerapena egin bazen ere, oraingoan bertan behera geratu direla adierazi behar da. Azken egunetan bi eskal presoen heriotzak goitik behera aldatu du antolatzaileen egitasmoa.

Hamabost egunez atzeratu dira herri kirol saioak. Martxoaren hogeita bostean lehiatuko dira, beraz, Andoaingo, Urrietako eta Hernaniko gazteak. Kanporaketa modukoa izango da, irabazten duen taldea Etxarriko Gazte kanpaldian izango den finalerako sailkatuko baita. Herri

kirol lehia bezala, bazkaria eta trikipoteoa ere bertan behera geratu dira.

KONTZERTUAK GAZTETXEAN

Antolatzaileek jakinarazi dute eutsi egiten zaiola Gatzetxean izango den musika eskaintzari.

Ospitalean ere, lehen hitza euskaraz POSTONTZIA

Irakurle hori, zuregana jotzen dugu Donostia Ospitaletik gure lanaren berri emateko. Euskara Batzordeko kideak gara eta gure helburua Ospitalean euskararen erabilera bultzatzea da. Batzordea modu honetan dago eratu: batetik, zentroko zenbait langile eta, bestetik, ospitale kanpoko pertsonak. Gure lana eta Osakidetzak abian duen Euskara Normalizatze Plano elkarren osagarri dira.

Aurreikusita ditugun helburuen artean, honako hau azpimarratuko genuke, gure ospitaleko pazienteak eta beren senitartekoak bertan euskaraz hitz egitera animatzea. Horregatik, zure lankidetzara eskatu

nahi dugu, gure asmoa zure udalerrian kanpainaren berri ematea baita.

Jakin badakigu, medikuntzak eta Ospitaleak irudia hobetu behar dutela eta oraingo ezin dugula zerbitzu erabat elebiduna eskaini, baina bideari ekin diogu. Horrela bada ere, kanpaina honen helburua euskaraz mintzatu nahi duten langileek, pazienteek eta senitartekoei horretarako aukera izan dezaten ahalbidetzea da.

Kanpaina sustatzen ari den lantaldea
Donostia

Emakumeen afarirako txartelak

Nazioarteko Emakumearen egunaren inguruko kultur hamabostaldiari amaiera emango dio afari batek. Nahi duen orok eman dezake izena martxoaren 21a baino lehen. Izena emateko Bastero Kultur-gunean eta ohiko saltokietan. Afaria 21:00tan hasiko da eta giro ederrean joango dela aurreikusi dute antolatzaileek. Afariaren prezioa 30 eurokoa da baina menua ez da nolana hiko. Afaria iritsi aurretik ekitaldi ugari izango da Udaleko Kultur eta Gizarte Zerbitzuen lantzailek antolatuta (ikus, Agenda atala).



Eusko Jaurlaritza

Kultura Sailak diruz lagundutako hedabidea

Astigaragan

Greban gaude antzerkia Lakrikun taldearen eskutik



Martxoak 23 / 19:00-20:00
Kultur Etxea. Sarrera: 3,5 euro



TXAPELKETAK IRABAZTEA BAINO, PILOTAZ GOZATZEA DA HELBURUA

Pilotari kimu berriak

Urnietarrak izan daitezke hurrengo olaizolatarrak. Pilotalekura hurbildu besterik ez dago herriko pilotari gazteen grinaz eta gogoaz jabetzeko. Kategoria ezberdinetako 47 haur eta gazte ari dira pilotan ikas-

ten. Gehienak, eskuz aritzen dira, baina bada pala edota paletan aritzen den talderik ere. Udaberriko txapelketan murgildurik dabilta helduenak hilabete honetan zehar.

Hamabi urte arteko gaztetxoak asteazkenetan biltzen dira frontoian. Txema Gonzalez entrenatzaileak dioenez, pilotan aritzea da helburu nagusia, "adin horretan ezin dira lehiatu, ez dute txapelketetan parte hartzen. Horregatik, helburu nagusia pilotaz gozatzea da. Eskolarteko partidak jokatzen dituzte, baina helburua inoiz ez da lehia. Helduagoak direnean hasten dira lehiatzen", dio Txemak.

LAU NESKA GOMAZKO PALETAN

"Hamairu urte betetzen dituztenean hasten dira lehiatzen. Momentu horretan pilota eskolatik UKEra pasatzen dira, txapelketa ezberdinetan parte hartzeko federatuta egon behar dutelako. UKEn hogeita zortzi pilotari ditugu orain, infantil, kadete, jubenil eta senior mailatan banatuta. Esan beharra dago senior mailako pilotariak palaz aritzen direla eta tartean, lau neska dabilzala, gomazko paletan. Gainera-



Pilota eskolako gazteenak aste honetan ateratako irudian.

ko kategorietako gazteak, eskuz aritzen dira".

UKEko pilotariak irailean eman zioten hasiera denboraldiari Gipuzkoako Txapelketa jokatuz. Unai Legarreta pilotari

urnietarra txapeldun suertatu zen txapelketa honetan. "Momentu honetan Udaberriko txapelketa jokatzen ari dira. Eskertu beharra dago jokalarien gurasoek betetzen duten

papera. Gurasoak arduratzen dira jokalariek partidetara eramatez eta hori eskertzeko lana da". Denen laguntza beharrezkoa dela, alegia.

Haurrak lehiakor bihurtu

baino kirola egitera bultzatea da taldeko arduradunen helburu nagusia "Txapelketak jokatzea polita da, baina emaitzak ez dira hain garrantzitsuak. Dударik ez dago, beti galtzea inori ez zaiola gustatzen, eta horrek jokalariek desmotibatu egiten dituela, baina irabaztea ez da lehen helburua. Kirola gustura egitea eta denbora libre pilotarekin betetzea da helburu nagusia. UKEko pilotariak asteartetan eta ostegunetan izaten dira frontoian entrenamenduak egiten, eta astelehen eta asteazkenetan Jokin Lizeaga prestatzaile fisikoarekin aritzen dira".

Pilota eskolako gazteak berriaz, asteazkenetan izaten dira pilotalekuan, 17:00etatik 19:00etara. "Gazte hauekin, helburua nagusia pilotan jolasten jarraitu dezatela lortzea da. Azken urte hauetan asko dira pilota utzi eta futbolean hasten diren gazteak. Formula ezberdinak aztertzen ditugu hori lortzeko", adierazi du Txema Gonzalezek.

Eskola-kirola hitzarmena



Ikastetxeko ordezkariak eta Urnietako alkatea, sinadura ekitaldian.

Aurreko urteetan egin bezala, Urnietako Udalak Eskola-Kirola hitzarmena sinatu zuen herriko ikastetxe guztietako ordezkariekin. Hitzarmenaren sinadura ekitaldira Egape Ikastolako, Salesiar ikastetxeko eta

Presentación de Maria haur eskolako ordezkariak hurbildu ziren. Haien sinadurari Urnietako alkatearena gehitu zitzaion. Hitzarmen honek hainbat betebeharrak biltzen ditu, horien artean, euskararen erabilera bermatzea.

Erakusketa

Enrique Ochotorena
akuarelak



Martxoaren 13tik 26ra ■ LEKAI

Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00.

Larunbat eta igandeetan: 12:00-14:00.

Antolatzailea:



URNIETAKO UDALA
KULTURA SAILA

Autobidearen ibilbide alternatiboa aldarrikatzeko

Ehunka herritar bildu zen manifestazioan



Urrietako kaleetan barrena manifestazioa egin zen aurreko igandean.

© Xabier Ubeda

Aurreko igandean hainbat herritar kalera irten zen instituzioek aurreko eraman nahi duten egitasmoari desadostasuna agertzeko. Abiatu ahala, San Juan plazatik irten zen pankartaren atzean jende gehiago hurbiltzen joan zen. 200-300 herritar bildu zela esan daiteke.

Manifestaldiaren inguruko baloraketa egin eta protesta ekintza berriak aztertzeko Arnasa plataforma, Berrasotako auzo elkarte edota arau subsidiarioetako taldeak bilduta izan ziren martxoaren zortzian.

EIZAGIRREREN BALORAKETA

Bilera horren atarian, maila pertsonalean, manifestaldiaren inguruko baloraketa egin zuen Mikel Eizagirre Arnasako ordezkariak: "Gure proposamen alternatiboaren kale agerraldia egin genuen aurreko igandean. Bere garaian erraustegiaren gaiak izandako

Instituzioetako ordezkariekin negoziazio prozesua hasi arte protesta ekintzekin jarraituko dute manifestazioko sustatzaileek

inpaktoa ez zuen izan baina agerraldi itxurosoa egin genuela esan dezaket. Instituzioetako ordezkariekin negoziazio prozesua hasi arte horrela jarraituko dugu. Guk egindako eskakizunak mahai gainean jarri nahi ditugu. Herritarren sinadurak ere aurkeztu ditugu. Udaletxean, alderdi politikoen aurrean, gaiaren inguruan eztabaidatu nahi dugu". Lehen agerraldiak segida izango zuela ziurtatu du Arnasako ordezkariak. Epe laburrera ezer aurreikusita ez dagoen arren, protesta ekintzekin jarraituko dutela ziurra da.

UGALDEREN IRITZIA

Aiurrik Urrietako alkateari iri-

tzia eskatu dio gaiaren eta manifestaldiaren inguruan. "Hamar urte dira gai honekin hasi ginela. Prozesu luzea izan da eta azkenean zer eskatzen duten oso garbi ez daukat. Gure baloraketa da hau ezin dela gehiago atzeratu, autobidea aspaldi egin behar zuelako. Bere garaian jende mordoska batek alegazioak aurkeztu zituen. Hogeita bederatzi gutxienez, bai. 1997ko otsaileko kontuaz ari gara. Garai hartako Berrasotako juntak egin zituen alegazioak, Oztaranen bi talde sortu ziren... Proiektuan dagoen ibilbidea garai hartako alegazioak kontutan hartuta egin zen. Beraz, prozesu luze honetan hainbeste aldaketa proposatzea ez da posible".

Manifestaldian azaldu ziren "Florentino, vete ya" afitxen inguruan Urrietako alkateak ez zuen iritzirik eman nahi izan, "Ez dut ezer esatekorik, ez naiz dinamika horietan sartuko".

Gazteen artean eragiteko

San Markoseko Mankomunitateak hezkuntza-programa berriena Urrietako ikasleen artean burutu zuen. Otsailaren erdialdean ingurugiroarekiko gehiago sentsibilizatzeko aukera izan zuten ikasle gazteek.



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA SALGAI

- **Herria:** Andoain.
- **Informazio gehiago:** 943 590 158 (20:00tik aurrera).
- **Ezaugarriak:** Olagain auzoan pisua salgai. 82 m², 3 logela, sukaldea, sala, bainua eta trastero txikiarekin. Eguzkitsua eta bista ederrarekin.

Sagarrondotik 2006 jakinarazpena POSTONTZIA

Sagarrondotik jaialdiaren antolatzaile taldeak zera jakinarazi nahi du: Martxoaren 17 eta 18rako prestatuak ginituen taldeetatik bik, **O'funk'illo** eta **Living Colour** taldeek, tamalez ezin izango dutela gure jaialdira etorri. Gertaera honen arrazoiak gure eskuhartzetik guztiz kanpo gelditzen dira, hau da, taldeek beraien izan dituzten arazoak izan dira egoera honetara eraman gaituztenak, guk bien etorrera sinatua bagenuen ere. O'funk'illoren kasuan, taldea desegin berri da egun hauetan, beraien arteko arazo pertsonalak medio. Eta Living Colouren kasuan berriz, taldekideen manager pertsonalen arteko liskar eta desadostasunak izan dira gure nahia burutzea galerazi dituztenak.

Guzti hau jaialdirako egun gutxi falta direla gertatu bazaigu ere, elkarte txiki hau berahala jarri da lanean, eta jendeak urtero erakusten duen konpromezuak bederen merezi duelako, gure partetik aha-

legin guztia egingo dugu gure eskaintzak tantarik galdu ez dezan.

Hala inork, bi taldeetako bate-rako espreski eresia bazuen sarre-ra, dirua berreskuratzeko aukera emango genioke hilaren hamabost-terarte telefono honetara deituta: 943 243 723.

Beraz, eta oztopoak oztopo, adierazi nahi dizuegu, orain arteko ilusio eta gogo berdinarekin ordezkaturiko ditugula bi talde hauek. Sagarrondotik osotasun bat baita, jaialdi koloretsu eta handia, musikari partehartzaileen gainetik. Guk gogoz ikusten dugu Sagarrondotik 06, eta badakigu aurtengoan ere, zuen babesa eta ulermena izango dugula, eta hala, guztion artean sekulako festa eta urteroko giroa izatea lortuko dugula. Eskerrikasko guztioi beraz alde zurretik, ondo pasa,... TX00000TX!

Sagardoaren kultura sustatzeko elkarte
Urnieta-Hernani



FUTBOLA

FUTBOLA EMAITZAK

Erregionala, 1.maila
Danena 2- UKE 1
Jubenilak, 1.maila
Behobia 2- UKE 1
Kadeteak, 1.maila
UKE 1 - Euskalduna 4
Emakumezkoak
Vasconia 2 - UKE1
Emakumezkoak F-8
Beti gazte 2 - UKE 4
Infantilak
Martutene 0 - UKE 3

ASTEBURUAN ZER? PARTIDAK

Erregionala, 1.maila
UKE- Oiartzun, Lar, 15:45
Jubenilak, 1.maila
UKE- Amara Berri, Lar, 17:45
Kadeteak, 1.maila
Beti ona- UKE, Lar, 11:00
Emakumezkoak
Euskalduna- UKE Lar, 17:15
Emakumezkoak F-8
UKE- Allerru, Lar, 11:30
Infantilak
Amara Berri- UKE, Ig, 16:30

ARETO FUTBOLA

ARETO FUTBOLA

Asteburuko partidekin, amaitutzat eman zen txapelketako ligaxka. aurrerantzean, sailkapeneko lehen zortzi postuetan geratu diren taldeak lehiatuko dira. Pasa zen asteburuan, atzeratutako partidak ere jokatu ziren, hona hemen emaitzak.

EMAITZAK

C. del Pueblo 10- **Persyde** 2
Bar blink 2- **Bar Urkabe** 9
Dracula 3- **La Florida** 8

Jone boutique 10 - **Tsunami** 2
Jone boutique 1- **V. yo y c.** 0
Lib. Idiazabal 3- **Tsunami** 5
Mec. Kamox 6- **F. Otaño** 4
Tsunami 1- **V yo y mi c.** 0

SAILKAPENA

1. **Jone Boutique**34
2. **Casa Del Pueblo** . . .27
3. **Fontaneria Otaño** . .25
4. **Libreria Idiazabal** . .22
5. **Mec. Kamox**21
6. **La Florida** 16520
7. **Tsunami**20
8. **Muxarra**18



Ez dago arazorik, irtenbideak baizik

Hedabideak sortu, garatu eta kudeatu

Argitalpenak taiutu, ekoiztu eta euskaldundu

Erroitz, b.m.
Beterriko hedabide eta iragarbideak
Dr. Huizi kalea, 15
20.140 Andoain – Gipuzkoa



HITZ-GEZIDUNAK

		* IZENA	▼	Filosofiaren adarra	▼	Musika nota	▼
		Hegazti harraparia		Mendebaldean, naiz		Gipuzkoan, zain	
		Portua	▶				Txilio eginez
		Niri, ditu	▶				▼
Lehengoratu	▼	Iratze	▼	Nitrogenoa	▶	Bokala	▶
Bizkaieraz, nola		Emakume izena		Galdetzaila bat		Katu eme	
				Potasioa	▶	Gironako autoetan	▶
				Puska		Interjekzioa	▼
* DEITURA	▶						
Seroren etxe							
Germanioa	▶			Moztu	▶		Bokala
Esanahi ber-tsuko hitzak				Osmioa			Galderetan
Kaia	▶					Bokala	▶
						Musika nota	▶


HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESKUIN: 1.- Adostasun batera iritsia, hitzartua. 2.- Kontsonantea. Bizi. Kontsonantea. 3.- Artzenikoaren ikurra. Emakume izena. Galioaren ikurra. 4.- Torturaren aurkako taldea. Kontsonantea. Bi zati bi. 5.- Erabiltzeko era. 6.- Mila eta bi. Bokala. Kitatzeke dago. 7.- Bizkaiko herria. Hitz, solas. Ez eme. 8.- Bokala. Zatar. Bokala. 9.- Jarduera.

GOITIK BEHERA: 1.- Katu emea. 2.- Bokala. Soldada. Bokala. 3.- Bostehun eta bat. Epe. Turkia. 4.- Lehen, zakurra. Kontsonantea. Gaixo. 5.- Urrietako jaiak. 6.- Istua, txistua. Kontsonantea. Denbora tarte. 7.- Dunaren erdian. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren laburdura. Utikan! 8.- Bokala. Iratzea. Bokala. 9.- Bizkaieraz, itsusia.

PUZZLEA




Non kokatuko dituzu "A", "B" eta "D" piezak?

ERANTZUNAK

EZKER ESKUIN: 1. Adostasun batera iritsia, hitzartua. 2. Kontsonantea. Bizi. Kontsonantea. 3. Artzenikoaren ikurra. Emakume izena. Galioaren ikurra. 4. Torturaren aurkako taldea. Kontsonantea. Bi zati bi. 5. Erabiltzeko era. 6. Mila eta bi. Bokala. Kitatzeke dago. 7. Bizkaiko herria. Hitz, solas. Ez eme. 8. Bokala. Zatar. Bokala. 9. Jarduera.

L	A	E	A	S	A	N
K	O	M	I	N	O	S
O	N	E	T	E	G	E
I	G	A	R	O	R	S
L	A	Z	A	B	A	L
I	G	K	N	L	A	Z
X	A	N	G	D		
T	K	I	D	I	Z	
	A	I	K	A	I	
A	Z	A	H	O	N	T
F	E	J				

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Argitaratzailea:
Manuel Larramendi Kultur
Bazkunaren Andoaingo
Udalerrri Biltzarra eta
Urnietako Inistorra
Euskaltzaleen Biltzarra.

Egoitza Orokorra:
Dr. Huizi kalea 15, 1-esk.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: aiurri@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Urnietako egoitza:
San Juan Plaza, 9
20130, Urnieta
Tel.: 943 331 455
@: urnieta@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:
Jon Ander Ubeda.

Erredakzioa:
Ainhoa Gil, Jon Ander
Ubeda, Jon Unanue eta
Aitziber Salinas.

Diseinua:
Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.

**Publizitate
Arduraduna:**
Fernanda Irazu.

Argazkilariak:
Xabier Ubeda.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa
multimedia (Huarte-Iruñea).
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870

Kudeatzailea:
Aitziber Arreseigor.

**Banaketa
arduraduna:**
Xabier Ubeda.

Banatzaleak:
Andoain:
Laida Jauregi,
Elixabet Isasi.
Urnietako:
Ander Balda,
Befiat Erkizia.

Agenda

MARTXOAREN 10ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: 943 300 732 / aiurri@topagunea.com

Odol emaileak

Andoain
■ Martxoak 14, asteartea
Anbulatorioa

Mendizaleak

Andoain
■ Matxinbenta- Sta. Marina- Intxurre
(743)- Isastegi (sagardotegia).
Martxoak 19, igandea

■ **Haurrentzako irteerak**
Ibilaldi neurtua.
Martxoak 12, igandea

Ikastaroa

Andoain
■ Urpeko igeriketako hastapen ikastaroa antolatuta da.
Martxoak 18, larunbata
16:00, Allurralde

Lehiaketak

Andoain
■ **Santakrutzen** inguruko kartel lehiaketa. Izen ematea: Ernaitza.
Lanak aurkezteko azken eguna:
Martxoak 27, ostirala

Gazte olinpiadak

Andoain
■ Gazte olinpiadak Zumea plazan, eskualdeko taldeen parte hartzearekin. Hamabost egun beranduago izango da herrien arteko lehia. Azken gertaerak direla medio atzeratzea erabaki dute antolatzaileek.
Martxoak 25, larunbata



Martxoak 8

Andoain
■ **Filma**
"El secreto de Vera Drake" filma izango da ikusgai eta mintzagai.
Martxoak 14, asteartea
Bastero

■ **Hitzaldia**
"Emakumea, etorkina eta gaztea", Janira Luberiaga eta Silvia Carrizoren eskutik.
Martxoak 16, osteguna
19:30, Bastero

■ **Antzerkia**
"Como agua para chocolate"
Martxoak 17, ostirala
21:30, Bastero

■ **Mahai ingurua**
Arantxa Urretabizkaia, Arantxa Kartzada eta Pilar Rodriguez emakumeak komukabideetan duen paperaren inguruan arituko dira.
Martxoak 21, asteartea
19:00, Bastero

Sagarrondotik

Urnietako
■ **Egun osoko festa** Urnietan: sagardo dastaketa, herri kirol lehia eta eskualdeko artisauen erakusketa.
Martxoak 19, igandea

Bolei partida

Andoain
■ **Leitzaran-CV** Sestao, senior maila.
Martxoak 12, igandea
11:30, Allurralde

Haur antzerkia

Andoain
■ "Abrete sesamo".
Martxoak 12, igandea
12:00, Bastero

Musika

Andoain
■ **Vantroi**, Los señores enmascarados, Krilin eta Ten Last second taldeen kontzertua.
Martxoak 10, ostirala
Gaztetxea

■ **Ire et Decessus** eta beste talde baten kontzertua.
Martxoak 11, larunbata
Gaztetxea.

Guraso eskola

Andoain
■ "Seme-alaben autoestima garatzen laguntzeko estrategiak".
Martxoak 16, osteguna
17:30, Aita Larramendi ikastola

LAN DEIALDIAK

DONOSTIAKO MUSIKA ESKOLA

- **Deitzailea:** Donostiako Udala. Musika eta Dantzako Udala Eskola.
- **Lanpostuak:** Txistulari irakaslea, kontrabaxuko irakaslea eta administraria.
- **Edukia:** Goi-mailako batxilergoa, LH II edo baliokidea, 2. hizkuntza-eskakizuna.
- **Hasiera:** 2006-03-22.
- **Info:** 943 481 000.
- **E-posta:** donostia@udal.gipuzkoa.net.
- **Webgunea:** donostia.org.

HEZITZAILEAK

- **Antolatzailea:** Lasarteko Ttakun elkarte.
- **Ezaugarriak:** Lan-poltsa honen bidez, giza-baliabideei dagokionez dituen hainbat behar bideratu nahi ditu: ikastaroak emateko irakasleak, proiektuak garatzeko dinamizatzaileak, aisiako egitasmoetarako koordinatzaileak, kultur jardueren antolatzaileak...
- **Hautagaiak:** Heziketarekin lotura duten ikasketak egindakoek (edo egiten ari direnek) eman dezakete izena: gizarte hezkuntza, pedagogia, gizarte eta kultur animazioa...
- **Kurrikulumak aurkezteko:** ttakun@ttakun.com

IKASTAROAK

FRESADORA

- **Deitzailea:** La Salle Berrozpe ikastetxea.
- **Ezaugarriak:** CNC fresatze-ko makinaren prestaketa eta programazioa.
- **Hasiera:** 2006-03-27.
- **Iraupena:** 46 ordu.
- **Info:** 943 590 557.



Urnietar hori:

zure ekarpenarekin hobetuko dugu dohainik jasotzen duzun astekaria.

**Aiurri iraunaraziko dugu...
zuk laguntzen badiguzu**

Aiurri, Urnietako nortasun hitzak

Izen Abizenak
.....
Helbidea
Telefono zenbakia
Jaiotze urtea
Kontu Korronte zenbakia

Aiurri

2006ko martxoaren 24a
Udaberria hemen da!

- **Gehigarri berezia**
Ezkontzak, jaunartzeak... ospakizunak bata bestearen atzetik udaberrian. Eguzkiaren etorrerarekin arima alaitzeko sasoirik egokiena.
Martxoaren hogeita lau gehigarri berezia Aiurriren eskutik

AITA LARRAMENDI IKASTOLAKO IKASLEAK OTSAILEAN GARAILE IZAN DIRA INTERNET BIDEZKO LEHIAKETAN

Aurrera, klik eta klik



Klik eta klik EAE mailako lehiaketaren hirugarren edizioan Aita Larramendi Ikastolako kideak lehen postuetan sailkatuta daude eta azken txanpan sartu dira.

Hilabete osoan egindako proba ezberdinak burutu ondoren, sailkapen orokorra berritu ohi da. Otsailean Andoaingo ikastolako DBH 3. mailako ikasleak nagusitu ziren. Irabazle izateagatik ordenagailua eskuratu dute sari modura.

Ikastolako arduradunek adierazi duten bezala, **Klik eta Klik** lehiaketaren edizio honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 53 ikastola, institutu eta ikastetxe parte hartzen ari di-

ra. Hilabetez hilabete lehia hainbat gaitasunen lanketan oinarritzen da: kalkulua, informazio bilaketa, lankidetzeta, analisia eta adierazpena.... lehia estuan aritu dira Azkoitiko Floreaga eta Ordiziako Jakintza Ikastoletako ikasleekin.

MARTXOAN AZKEN TXANPA

Aurtengo edizioko irabazlea nor den martxoan jakingo da, orduan amaitzen baita lehia.

UKE ETA EUSKALDUNA TALDEETAKO KADETEEN PARTIDA, ANDOAINDARREN ALDE



S.D. EUSKALDUNA – KADETEAK, LEHEN MAILA

Entrenatzailea: Gonzalez Rodriguez, Javier. **Delegatua:** Fernandez Martinez, Cristofer. **Jokalariak:** Mario Dos Santos, Walter Rosario, Gonzaga Placencia, Iñaki Cuesta, Jon Otaegi, Josu Jon Wesley, Igor Lopez, Imanol Martinez, Josu Dominguez, Aritz Otermin, Aitor Gracia, Jon Artola, Asier Caro, Kevin Garcia, Ricardo Huerta, Anartz Hinchado, Asier Ceballos, Aritz Chouza, Ekain Gorrotxategi, Aitor San Martin, Ander Balda, Beñat Unzalu, Unai Unzalu eta Jokin Agirre.



UKE – KADETEAK, LEHEN MAILA

Entrenatzailea: Koldo Ajeitos. **Delegatua:** Jose Manuel Lopez. **Jokalariak:** Ander Paco, Unai Urruzola, Jon Mikel Olló, Josu Irigoien, Asier Gonzalez, Eneko Altuna, Andoni Olazagirre, Iban Sardon, Dani Gomez, Dennis López, Iñaki Arizpitarte, Josep Ramio, Unai Lizeaga, Igor Beristain, Ander Barragan, Jaime, Gorka eta Itoitz.



36ko Gerran Asteasun
zer gertatu zen jakin
nahi al duzu?

AIURRIKO BULEGOETAN ESKURAGARRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
Aiurri

943 300 732

Dr. Huitzi, 15-1. esk.

20140 ANDOAIN

aiurri@topagunea.com

www.aiurri.com